

BERGARAKO ADIERAZPENA

Foruen abolizioaren 150. urteurrena eta Bergarako Alkate Mugimenduaren 50. urteurrena

2026ko uztailaren 19an, oroimenaren eta etorkizunaren arteko elkargune bilakatu da Bergara.

Duela ehun eta berrogeita hamar urte, 1876ko uztailaren 21ean, Espainiako Gorteek amaiera eman zioten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-erregimenari. Lehenago, Nafarroako Erresumaren erakunde eta ahalmen politikoak sakon murriztuak izan ziren 1841eko Lege Hitzartuaren bidez; eta Ipar Euskal Herriko lurraldeek ere galdu zituzten beren eskubide historikoak Frantziako Iraultzaren ondorioz.

Erabaki haiek ez ziren euskal herritarren borondatearen emaitza izan. Espainiatik eta Frantziatik ezarri ziren, eta mendeetan zehar Euskal Herriak garatu zituen erakundeak, berezko ordenamendu politikoa eta autogobernurako gaitasuna eten zituzten.

Ordura arte, gure foru tradizioak bazuen bere garaia gainditzeko zuen intuizio bat: pertsonaren duintasuna boterearen aurretik jartzea. Euskaldun guztiak kapare izendatzen zituen kultura politiko hark, gaurko begiekin ikusita bere kontraesanak izanik ere, berdintasunerako eta herri-partaidetzarako bide bat ireki zuen hemen Europako hainbat tokitan baino lehenago.

Foruak Herri honek bere burua gobernatzeko mendeetan zehar garatutako gaitasun politikoaren adierazpena izan ziren. Udaletan eta Batzar Nagusietan errotutako kultura demokratikoa, herriaren borondatea erakunde bihurtzen zuena eta euskal lurraldeen nortasun politikoari forma ematen ziona. Herri-agintearen eta askatasunaren tradizio hura izan zen gure erakunde historikoen oinarria.

Gure aurrekoek bazekiten askatasun politikoa eta kohesio soziala ezin direla elkarrengandik bereizi. Horregatik eraiki zituzten herriaren parte-hartzea, auzolana eta elkartasuna uztartzen zituzten erakundeak. Herri-agintea eta berdindaletasuna uztartzen zituen ondare hark erakutsi zuen autogobernua ez dela helburu bat bere horretan, herritarren ongizatearen eta askatasunaren zerbitzura dagoen tresna baizik.

Foruen abolizioa Euskal Herriak historian zehar izan duen subjektutasun politikoaren aurkako haustura izan zen. Herri honek bere burua gobernatzeko zuen eskubidearen ukazioa.

Foruak kendu zituzten baina ez zuten Herri hau desegin. Ez zuten ezabatu bere hizkuntza. Ez zuten itzali bere memoria. Ez zuten hautsi bere izateko borondatea.

Horregatik gaude gaur hemen. Duela berrogeita hamar urte, 1976ko uztailaren 21ean, frankismoaren ilunpetatik irteten ari zen Herri batean, euskal udal ordezkariak Bergaran elkartu ziren. Foruen abolizioaren mendeurrena oroitzeko eta, batez ere, etorkizunari begiratzeko.

Garai hartako alkate eta zinegotziek argi adierazi zuten Euskal Herriaren eskubide politikoak ez zirela iraungi. Argi esan zuten Euskal Herriak bere nortasuna, bere historia eta bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea zuela. Eta argi aldarrikatu zituzten udal demokraziaren tradizioa, foru askatasunen ondarea eta autogobernuaren beharra.

Haien hitzek denboraren joana gainditu dute. Gaur ere, 2026 honetan, baieztapen bera egiten dugu. Euskal Herria nazio bat da.

Bere hizkuntza, kultura, nortasun historikoa eta borondate kolektiboa ditu. Europako herrien artean berezko nortasuna duen komunitate politikoa da, eta bere herritarren borondatea da zilegitasun demokratikoaren iturria.

Bergarako ekitaldi politikoaren testuinguruan, berresten dugu euskal nazioaren aitortza politikoa ez dela iraganeko auzia. Gaurko premia demokratikoa dela.

Berresten dugu, halaber, euskal herritarrek dutela beren etorkizun politikoa libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea.

Eta berresten dugu herri baten borondate demokratikoa ezin dela behin eta berriz muga juridikoen, interpretazio politikoen edo Estatu-arrazoien menpe utzi.

Aurrez-aurre ditugun erronkek —eraldaketa ekonomikoa, trantsizio energetikoa, ongizate-estatuaren etorkizuna, migrazio fenomenoak, hizkuntzaren biziberritzea, segurtasun geopolitikoa edo Europako integrazioaren sakontzea— botere politiko eraginkorra eskatzen dute.

Herriek erantzukizunak hartu behar dituzte. Eta erantzukizunak hartzeko gaitasuna behar da.

Horregatik, burujabetzaren alde egiten dugunean, ez dugu soilik erakunde gehiago edo eskumen gehiago eskatzen. Gure herriaren ongizatea, kohesio soziala eta etorkizuna erabakitzeko beharrezkoak diren tresna politikoak aldarrikatzen ditugu. Izan ere, gaurko erronkei ezin zaielako atzoko tresnekin erantzun.

Ondorioz, uste dugu beharrezkoa dela Euskal Herriaren eta espainiar estatuaren arteko harreman politiko berria.

Aldebikotasunean oinarritutako harremana. Elkarrekiko errespetuan oinarritutako harremana. Bi subjektu politikoren arteko aitortzan oinarritutako harremana. Eta euskal herritarren borondate demokratikoa errespetatuko duen estatus juridiko-politiko berri batean gauzatuko den harremana.

Euskal nazioaren aitortza politikoa behar dugu. Eta gure autogobernua gaur egungo erronken mailara eramango duen botere-funts politikoa behar dugu.

Ez dugu iragana berreskuratu nahi. Iraganetik datorren askatasun nahia etorkizunera eraman nahi dugu. Foruek adierazi zuten autogobernuaren espiritua, gaurko garaietara egokituta, nazio gisa behar ditugun tresna politikoetan islatu nahi dugu.

Ez nostalgiaz baizik erantzukizunez. Ez konfrontazio nahiagatik, euskal herritarren ongizatea, kohesio soziala eta herri honen etorkizuna bermatzeko asmoz baizik.

Gaur, Bergarako Alkate Mugimenduaren 50. urteurrenean eta Foruen abolizioaren 150. urteurrenean, gure konpromisoa berritzen dugu. Gure herriaren memoriarekiko konpromisoa. Gure autogobernuaren garapenarekiko konpromisoa. Gure nazio izaeraren aitortzarekiko konpromisoa.

Euskal herritarrek beren etorkizuna libreki erabaki ahal izango duten Euskal Herri baten aldeko konpromisoa. Duela ehun eta berrogeita hamar urte indargabetu zituzten gure foruak. Duela berrogeita hamar urte Bergaran berritu zen askatasunaren aldarria.

Gaur, belaunaldi berri baten aurrean, bideari jarraipena ematea dagokigu. Konfiantzaz. Demokraziaz. Eta herri honek bere historian zehar erakutsi duen duintasun berarekin.

Gora Euskadi Askatuta!

2026ko uztailaren 19a